77. zenbakia - 2008ko azaroa

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

BERTSO ESKOLA

] ARRANTZA KANPAINAREN AMAIERA

MUSIKAZ BLAI]

Mendeurrenari begira

Musika Banda

TXOKO
ERRETEGIA
kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

Antxoak eta Bakailaoa
ITSAS MENDI
www.maisor.com
gutiziak
Kaia, z/g
Eusko Gudari, 5
Tel. 943 140 993
Tel. 943 248 774
GETARIA
ORIO

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

Azaroa hotz, negua motz. Azaroa bero, negua gero."

Argazkia: J.M. Ostolaza

artzape

77. zenbakia

2008ko azaroa

]5/Inkesta: **Durangoko azoka**

]6-7/Getarian zer berri? **Arrantza kanpainaren amaiera**

Musikaz blai

]8-11/Elkarrizketa: **Getariako Musika Banda**

]12 -13/Argazkien Txokoa: **Askizuko San Martin jaiak**

]14-15/Elkarrizketa: **Getariako Bertso Eskola**

]19/Petrilaren harritartetik

]20/Historiaren katebegiak: **Erroma eta gero zer?**

]23/Akordatzen: ***Makala tamaina!***

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkiza, Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Kepa Iribar, Imanol Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika [kolaboratzaileak] Xabi Intsausti, Xabier Alberdi eta Suso Perez [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape
[inprimaketa] Gertu [tirada] 1.200 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

] gutunak

"GETARIAREN 800. URTEURRENA": ZER DUGU OSPATZEKO?

Duela 800urte aldaketa nabarmen bat eman zen Getarian. Ordurarte gaur egun Euskal Herriaren mapa osatzen duten probintzia guztiek Nafarroako Erreinua osatzen zuten, Iruñea zelarik bertako hiriburua. Nafarroako erreinua, izaera propioa zuen, beste edozein Erreinu bezala zen ezagutua garai hartako Europaren egituran.

XIII. mendean zehar Gaztelako erreinuaren globalizazio edo hedapenaren baitan, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa Gaztelako koroaren menpera igarotzen dira. Hedapen hau bultzatzeko erreminta gisa erabili zutelarik herri ezberdinak fundatzea edo Getariaren kasuan bezala birfundatzea. Ordutik gaur egunerarte igarotako mende guztietan zehar euskal herritarrok gure nortasun propioaren atzerakada nola eman den ikusi dugu.

Getaria, Nafar erreinutik Gaztelako erreinuaren menpe egotera igaro zen duela zortzirehun urte. Data horretan eman zion Getariari "hiri gutuna" ("carta puebla") delakoa Gaztelako Alfontso VIII-ak... Hiribildu izaera, Nafar Erreinuko "Lizarrako Foru" delakoan oinarri hartuta eman zigun Gaztelako erregeak.

Ezker abertzalearen ustez 2009.urtea data garrantzitsua da. Batezere garrantzitsua da Getariarrok gure herriaren historia ezagutzea eta 800. urteurrena bere kontestuan kokatzea. Bestalde garbi dugu data gure kultura eta nortasunaren atzerakada suposatu zuen data ez dela ospatzeko modukoa.

Gaur egun ere zapalkuntza gogorra bizi dugu, mende ugariren ondoren oraindik ere onartzen ez gaituzten bi Estatuen aldetik. XXI. mendean, oraindik ere gatazka luze baten lekuko gara. Gure herriaren askatasunaren alde borroka egitera behartzen gaituzte Espainia eta Frantziak.

Aipatutakoaren arira, ezker abertzaleak urtetako gatazka gainditzeko proposamen bat aurkezten du: "Marko Demokratikorako proposamena" hain zuzen ere, bertan gutxiengo demokratikoak jasotzen dira gatazka sortzen duten bi korapilo nagusienei irtenbidea emateko (Lurraldetasuna eta erabakitzeko eskubidea). Balio beza beraz, gure historiaren errepaso honek etorkizunerako euskal herri aske baten bidean pausuak aurrera emateko.

Iker Azkue
Iñaki Mondragon
Karmele Iribar
Hautetsi Indenpendentistak

GETARIA TXUKUN ETA GARBI (III)

Izenburu horrekin egin nuen idatzia 2006ko maiatzan bidali nuen artzape aldizkarira, eta orduan argitaratua izan zen. Nire arridurako 2008-ko iraileko alean agertu zen berriro, baina ez nion garrantzi handirik eman idatzian azaldutako egoerak tamalez berdintsua izaten jarraitzen baitu.

Hala ere badirudi norbaitek ez duela ongi ulertu hain xinplea den idatzi horren esanahia.Agian idatziek marrazkiekin ilustratuta joan beharko dute aurrerantzean, baten batzuk ulertezinak diren ondorioetara iritsi ez daitezen.

Gaizka Ezenarro Uzin

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

] inkesta Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika]

Abenduaren hasieran, euskal kulturaren baitako hitzordu berezi bilakatu da Durangoko disko eta liburu azoka. Zer iruditzen zaizu egitasmo hau? Urtean zehar euskaraz irakurri edota euskal musika entzuten al duzu?





Urtzi Esnal

Egia esan azken urteetan ez dut Durangoko Azoka bisitatu. Hala ere, pare bat aldiz egona naiz bertan, eta gehien azpimarratuko nukeena bertan sortzen den giro aparta da: bai azokan eta bai herrian ere azoka itxi ondoren. Izan ere, kontzertuak egoten dira, eta kale nahiz tabernetan oso giro majoa izaten da gauean. Joan izan naizenetan, nire arrebarekin izan da, eta aldiro diskoren bat edo beste erosi izan dut. Bestalde, euskaraz gutxi irakurtzen dut, gaztelaniaz hobeto moldatzen naizelako. Euskal musika aldiz asko entzuten dut, asko gustatzen baitzait hemen egiten den musika. Oso talde interesgarriak ditugu Euskal Herrian.

Igor Arregi

Azoka garrantzitsua bezain polita iruditzen zait. Oso komenigarria da halako ekitaldiak antolatzea Euskal Herri mailan, euskal kulturako eragileak bertan elkarrekin bildu eta euskal kultura eta sorkuntza bultzatzeko. Lehen urtero joaten ginen lagun kuadrila, baina azkenaldian bi urtean behin hurbiltzen naiz azokara. Hori bai, lehen, zer erosi aurretik pentsatu eta erabakita joaten nintzen eta orain berriz, ezer pentsatu gabe joaten naiz, buelta bat eman eta zerbait interesgarria ikusten badut, erosi egiten dut; egia esan, beti erosten dut zerbait azkenerako. Bukatzeko,urtean zehar irakurtzeko ohitura badut, baina nagusiki gaztelaniaz, erraztasun gehiago baitut. Orain ingelesez ere irakurtzen hasi naiz, laneko kontuak medio. Euskal musika betidanik entzun izan dut eta orain ere sarri entzuten ditut talde euskaldunak.

Ixio Unanue

Bilgune oso polita iruditzen zait, eta bertan sortzen den giroa ere aberatsa da. Bertan jende interesgarri asko biltzen dela iruditzen zait. Niri dagokidanez, urtero joan ohi naiz, azkenaldian, Eskolako irakasle lagun batekin egiten dut egun osoko txangoa, goizean goiz abiatuta. Gehienbat eskolarako material berria ikusi, eta interesgarria bada erosteko baliatzen dut azoka. Horretaz aparte, pertsonalki, musika nobedadeetan jartzen dut arreta gehien; izan ere, musikaren munduan barneratuta nabil, eta denbora asko eskaintzen diot musikaren inguruko guztiari. Horren ondorioz, irakurketa eta liburuak pixka bat alboratuta dauzkat momentuz.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

Artzapetik begira

Xabi Intxausti

Freud mendekati!

Kongresu batera joan nintzen, oso dotore ni, gorbata eta guzti, dena nire konferentzia emateko prest. Freudi buruz hitz egin nahi nuen; hobeto esanda. Freud kritikatu nahi nuen, dena psikologikoki ulertzen duelako (panlogismoa esaten dute adituek) eta ez dituelako ulertzen gizartearen benetako gakoak. Zerbait nabaritu nuen, podiumera igo nintzenean: denak niri begira ari ziren, oso modu arraroan. Bi polizia hurbildu zitzaizkidan, eta preso hartu ninduten. "Zer gertatzen da?", galdetu nien, "Zer egin dut?" "Balentziagaren galtzontziloak daukazulakoan gaude". Nire buruari begiratu nion eta prakarik gabe nengoen, galtzontzilotan. Pinta ederra nirea! "Balentziaga Batzordera eraman behar zaitugu, eta bere aurrean erantzun behar duzu, ea benetan Balentziagarenak diren galtzontziloak eta nondik atera dituzun".

Orduan konturatu nintzen Freud egun batzuk lehenago nire etxera etorri zela ni bisitatzera, eta ni konturatu gabe Balentziagaren galtzontziloak armairuan sartu zizkidala. Konferentziako egunean, nik galtzontziloak hain politak zirela ikusita, berehala jantzi nituen. Hain liluratuta nengoen Balentziagaren (nik jakin gabe!) galtzontziloekin, ahaztu egin zitzaidan prakak haien gainean janztea. Hori Batzordeari kontatuta ziur nengoen ulertuko zutela.

Eta justu une hartan agertu zen talde bat, niri galtzontziloak kentzeko prest, garrasika: "Balentziagaren galtzontziloak Balentziaga museora!"

Zer gaizki esnatu nintzen goiz hartan! Freud, mendekati!

Goizean Freudi galtzontziloak nondik atera zituen galdetzeko deitu nion. Honako hau esan zidan:

[Oharra: sentitzen dugu, baina erantzuna oso konprometitua da, eta ezin dugu hemen jarri. Ulertuko duzuelakoan, eskerrik asko].

Arrantza urtea bukatzear da

Aurtengo arrantza urtea bukatzear da, eta balorazioa egiteko garaia da. 2008 urtea ez da batere ona izan, halaxe azaldu digu Kofradiako presidentea den Emeterio Urrestik: "Kilotan %25 gutxiago arrantzatu dugu, eta gainera batezbesteko prezioa ez da ona izan. Hegamotzari dagokionez, kuota txikia genuen; gainera Frantziaren boikota zela-eta Espainian saldu behar izan genuen prezio baxuan; hegaluzea, berriz, pixka bat harrapatu zen, eta gehiena freskoan saldu genuen, kalitatea eskainiz, lehiatzeko hori eskaini behar dugu eta. Gero, beste kanpaina txikiekin ere jardun gara: txitxarroa, sardina, eta azkena, garai honetan sartu eta asko baloratzen den urraburua".

Datorren urterako Bruselasek antxoaren beda proposatu du, eta horrek arrantza sektorea kinka larrian jartzen du: "Beda hori irekitzeko borrokatuko dugu: ahal den kuota txikiena izan dadila, baina zerbait, izan ere, azken lau urteetan merkatua galtzen ari gara, kontserbagileek beste merkatuetara jotzen dute eta."

Itsasontziak moila barrenean.

Artzapeko kuota ordainketa

Abenduan urteko kuota pasako zaie harpideei: 18€ko kuota ordainduko dute herrian bizi diren harpideek eta 20€ herritik kanpo bizi direnek. Transferentzia egin nahi dutenek honako kontuetan sar dezakete dirua: Kutxa (0011067949) edo Euskadiko Kutxa (1920005322).

Gabonetako loteria salgai

Keta Futbol Taldeak Gabonetako loteria jarri du salgai herriko hainbat taberna eta dendatan: Merke janaridendan, Politena eta Taxco tabernatan, Mari Nieves arrandegian, Juanjo autozerbitzuan, Izarri okindegian, Txoko erretegian eta Eugenio Uranga aseguru artekariarenean. Lortutako dirua denboraldiko kostuei aurre egiteko erabiliko dute.

Herritarrak Behobia-Donostian

Azaroaren 9an ospatu zen 44. Behobia-Donostia maratoi erdian hamazortzi herritarrek hartu zuten parte. Herriko korrikalarien artean gure lankidea den Zigor Saizar izan zen lehena helmuga zeharkatzen, 1:18:49 denborarekin; emakumezkoen artean, berriz, Kontxi Monasteriok lortu zuen denborarik onena: 1:43:09. Zorionak guztioi!

Sailkapena:

Zigor Saizar	1:18:49
Bernar Urresti	1:19:10
Javi Alonso	1:21:39
Fernando Campos	1:22:46
Ander Iribar	1:24:38
Unai Gastañares	1:26:39
Mikel Illarramendi	1:29:42
Iban Aranguren	1:37:51
Miguel Angel Hernandez	1:37:56
Joxe Agustin Tena	1:39:45
Kontxi Monasterio	1:43:09
Ioritz Fuentes	1:44:59
J. Berasaluze	1:46.19
Uraitz Etxeberria	1:46:25
M. Luisa Palacios	1:48:26
J. Atorrasagasti	1:52:43
Mª Isabel Aizpuru	1:52:43
Irune Azpiazu	1:58:05
J.I. Atorrasagasti	2:00:26

Argazkia: Manzisidor

Korrikalari batzuk Donostia aldera abiatu aurretik.

Musikaz blai!

Santa Zezilia Eguna dela eta, hainbat ekitaldi izan dira hilabete osoan: Gazte Alaiak Txistulari Taldearen kontzertua Salbatore Deunaren elizan, Musika Eskolako haurrek eskainitako kalejira, Abesbatzaren kontzertua elizan, Musika Bandaren kontzertua… Azaro honetan euriaz gain musikaz blai!

Hotzari aurre egiteko txokolatea banatu zen plazan.



Txistularien kontzertua.

Musika Eskolako haurrak kalez kale.

Abesbatzak eskaini zuen kontzertua.

Gazte Alaiak Txistulari Taldeko kideak kontzertua ondoren izan zuten bazkarian.

Zaborraren aurpegi polita

Iraunkortasunerako gogoak eta ingurugiroa errespetatzeak eraman gaitu mota guztietako energia aprobetxamendu sistemak sortzera. Gaur egun hiri hondakinak dira erabiltzen hasi direnak argi indarra sortzeko. Biogasa erabiltzeak kostu txikia du, eta gainera negutegi efektua sortzen duten gasen isurketa murrizten du.

Biogasa zabortegietan utzitako HHS (hiri-hondakin solido) deitzen zaionetik sortzen da. Edukinontzietan utzi ondoren, eta hermetikoki itxi ondoren, hartzidura prozesua hasten da, gas ezberdinak nahastuz eta gasa sortuz. Hau transformazio gune batera bideratzen da energia bihurtuz.

Energi aprobetxamendu sistema honek dituen abantaila nagusiak dira biomasa oinarrizko materia moduan erabil daitekeen baliabide berriztagarria dela, eta ingurugiroan eta osasunean eragin handiak dituen erregai fosilak ordezkatzen dituela.

Gainera biogasaren bidez argi indarra sortzea ingurugiroarekin errespetagarria den garapena lortzeko zehaztutako irizpideekin bat dator, jakinda bere eragina oso txikia dela.

EAEn ez dago boigasa sortzeko plantarik. Katalunian dagoen plantan metanoa sortzen dute; metanoa materia organikoko digestio anaerobikotik (oxigenorik gabea) lortzen da, hondakin organikoetatik lortzen da; mindetatik, lokatz araztegietatik edo hiriko hondakin solidoetatik.

Informazio gehiago:
Tel.: 943 896024
www.urolakosta.org
maizpuru@getaria.org

Getariako Musika Banda

Getariako Musika Banda 1911n sortu zen lehen zuzendaria izan zen Ignazio Etxesorturen eskutik. Hasieran banda 16 musikarik osatzen zuten, baina berehala gehitu ziren.
1925ean Manuel Gorostiaga "Piarres"-ek hartu zuen Bandaren zuzendaritza. Aguazil postua hartu zuenean Emeterio Isastiri utzi zion gidaritza, eta 1933tik 1936ra Justo Urangak jarraitu zuen. Bandak gerra garaian jotzeari utzi zion, eta amaitu zenean, Emeterio Isastik hartu zuen berriz zuzendaritza 1949 arte. Ordutik 1977 urtera arte Anjel Aizpuruk zuzendu zuen, eta hurrengo hiru urteetan, 1980 urtera arte, musikariek beraiek zuzendu zuten. 1980tik 1987ra Jesus Uria izan zen zuzendari, eta 1987tik 2001 bitartean Xabier Egaña. Ordutik Aitor Uria zarauztarra da Getariako Musika Bandaren zuzendaria.

Aitor Uria Musika Eskolaren sorreran etorri zen Getariara: Musika Mintzairako eta Musika Tailerretako irakasle izateaz gain, Musika Eskolako zuzendaria zen, eta Banda zuzentzen hasi zen gaur egun arte.

Zenbat kide zarete bandan?
Normalean hogeitik hogeita hamar bitartean ibili ohi gara. Asko herritik kanpora bizi dira, baina oraindik etortzen dira, lagun aldetik justuan baikabiltza, eta eskertzekoa da. Bestalde, kanpoko hainbat lagun ere elkartzen zaizkigu: Oriokoak, Zumaiakoak, Tolosakoak, Elgoibarkoak, Azpeitikoak… Azken hiru herritako kide horiek taldea sendotzera etorri ohi dira momentu zehatzetan, banda itxura izateko.

Justuan zaudete, beraz?
Bai, eta tamalez, zenbat eta lagun gutxiago, orduan eta lotuago daude. Banda bat desegitea errazena da, baina eskerrak zenbait lagunek eutsi eta eutsi egiten duten tematik; horiei esker banda aurrera doa. Getaria herri txikia da, baina banda dauka, eta horretaz arro egon behar dugu; badira Musika Eskola izan baina bandarik ez duten herriak: Orio, Lasarte… Gurean belaunaldi batek eusten dio, baina oraindik atzetik etorriko den belaunaldia falta zaigu.

Entseguak egiterakoan, nola moldatzen zarete kanpokoekin?
Adibidez, Tolosatik 6/7 lagun etorri izan ohi dira, baita gutxiago ere; horiei, oro har partiturak bidaltzen dizkiegu, eta kontzertua hurbiltzen doan neurrian, azken bi entseguetara etortzen dira. Guztiak eskarmentu handiko lagunak dira, eta etortzean, hemengo soinuari egokitzea besterik ez zaie falta izaten; izan ere, banda bakoitzak bere soinua izaten du.

Bandaren arabera, beraz, sonoritate ezberdinak daude?
Bai, noski. Batetik, banda txikia ala handia izateak zerikusia du sonoritateari dagokionez: handia, Tolosakoa kasu, instrumentu aldetik osatuagoa da eta sonoritate aldetik ezberdina; horri banda zuzendariaren maniak ere erantsi behar zaizkio.

Zenbat eta lagun gehiago, norberak altuago jotzen al du?
Ez, baina ohitua dago bere inguruan bolumena izatera; adibidez, klarineteak izugarrizko bolumena izan ohi du atzetik, eta eurek ere eutsi egin behar diote bolumen horri. Bestalde, kalean jotzen ohitua izanez gero, tolosarrak bezala, oraindik eta ozenago jotzen da. Beraz, hona etortzen direnean, kamarako banda txiki batekin egiten dute topo, eta gainera elizan jo ohi duena.

Zer abantaila du elizan jotzeak?
Guretzat izugarrizkoa. Batetik, leku itxia da, jendea entzutera etortzen da eta isiltasuna da nagusi; bestetik, oihartzun ederra dauka, soinua gorpuzten laguntzen duena. Guk hori guztia oso ondo aprobetxatzen dugu, izan ere, kontzertu guztiak, Salbatore Deunaren Egunekoa izan ezik, elizan egiten ditugu, eta tamaina ondo hartuta daukagu.

Kanpoan jotzeak ozenago


Hasierako banda herrian kalez kale.

“Getaria herri txikia da, baina banda dauka, eta horretaz arro egon behar dugu”

“Herriak nahi du banda eduki, baina horretarako jendea behar da”

jotzea suposatzen du?
Bai, baina nahiz eta ozenago jo, soinuak ihes egiten du, eta emaitza eskasagoa da; horrez gain, kaleko ekitaldietan kontzentrazioa lortzea zailagoa da, eta ondorioz, pieza guztiak ezin dira kalean jo.

Banda gaztea da, ezta?
Helduak diren hiru bat kide ditugu, belaunaldi baten hutsunea dago, eta azken multzoa 20-30 tartean mugitzen gara. Banda gaztea da, baina adin txarrenean dago: ezkondu direnak, beste herrietara bizitzera joanak, haurdun daudenak...

Lagun berriak sartzea herri guztietako arazoa da, ezta?
Bai. Bandek azken 20/30 urteetan izugarrizko aldaketa izan dute, gizarte beraren aldaketek eraginda; jende gaztea erakartzea zaila da, baina hau ez da banden arazoa soilik, tamalez edozein ekintzetan aurki daitekeen arazoa da. Gainera, herri txikietan areagotu egiten da, lagun gutxiago baitago.

Tarte horretan Musika Eskola sortu da; bandarentzat lagungarri?
Musika Eskolarekin nola funtzionamenduarekin egokitu behar; izan ere, Musika Eskola bandaren beharragatik sortu zen: garai batean ez bezala, musika tresna bakoitzeko irakasle espezializatu bat egotea komeni zela adostu zuen bandak.

Musika Eskolatik bandarako saltoa erraza al da?
Getaria bezalako herri txiki batean, guregana iristeko denborak luze jotzen du, eta leku guztietan Musika Eskolak motz geratzen diren bandek dituzten beharretarako, eurek bere martxa baitute musika irakasteko. Hori dela eta, Valentzian adibidez, Musika Eskola izan beharrean Bandako Eskolak daude, non bandako instrumentuak irakasten diren. Hala ere, gu elkarlanean ari gara pauso hori era eta denbora egokian izateko; hori dela eta, aurten esperientzia berri bat jarri dugu martxan: bandan jo nahi duten lagunak bilatu ditugu, eta horiei gure instrumentuak utzi dizkiegu doan; trukean, bandarekiko konpromiso bat eskatzen dugu, lotura txiki bat. Gainera, herriak nahi du banda eduki, baina horretarako herritarrak inplikatu behar dira, eta gehienak ez dira kontziente jendea behar dela.

Esperientzia horren emaitza ona al da?
Ni gustura nago; hamar bat haur ditut, LH4 eta LH5ekoak, eta ostiraletan biltzen gara: pixkanaka bandaren gauzetara ohitzen doaz, partituren egiturekin, zatiekin, instrumentuekin…

Zenbat instrumentu ditu bandak?
Flauta, flautina, klarinetea,

saxo altua, saxo tenorra, fliskornoa, tronpak, tronboiak, bonbardinoak, tubak eta perkusioa.

Guztiek batera entseatzen al dute?
Batetik partzialak egiten ditugu: bandaren zatiak izan ohi dira, talde txikitan entseatzen da praktikoagoa baita; eta bestea, bandarekin egiten dudana. Kontzertua dugunean, azken bi entseguetara kanpoko kideak etortzen dira, eta orduan lortzen dugu guztiak bateratzea; noizbait gertatu da kideren bat ez etortzea, eta orduan, emaitzan nabaritzen da.

Entzuleak nabari du?
Musika ez dakitenentzat egiten da, beraiek baitira musikarekin gozatzen dutenak, eta hori lortuz gero, nahikoa. Entzuleek ez dute jakin beharrik musika hori lortzeko zer pauso eman diren, horretarako musikan jakitunak daude: entzuleek gozatu egin behar dute.

Partzialak osatzeko zer irizpide hartzen dira?
Normalean Bandako zatien arabera egin beharko litzateke, baina gure kasuan, batetik urte asko eta eskarmentu handia duen taldea daukagu, eta bestetik, jende hasi berria; ondorioz, partzialak Bandan daramatzaten denboraren arabera egiten ditut, perkusioko taldea izan ezik.

Entseguek ba al dute zailtasunik?
Niretzat zailena une oro bandaren gogo-aldartea zein den jakitea da: hau da, non dagoen muga, noiz exijitu gehiago eta noiz ez.

Etorkizunari begira, zer helburu ditu Bandak?
Bandari dagokionez, lagun kopurua ugaritzea izango dugu helburu nagusiena; bestalde, musikalki ditugun helburuak gozatzea eta musikari bezala ikastea lirateke. Horrez gain, Bandan dauden mailak uztartu behar dira: eskarmentu handia duen taldea eta sartu nahian dagoena.

Banda zuzentzeko orduan, zer da zailena?
Berez, keinu sinpleena dena: guztiak batera sartu behar dugu, eta guztiak batera joan eta bukatu behar dugu; baina hegazkinei gertatzen zaien bezala, musikan ere zailena hastea eta bukatzea da. Keinuak garbia izan behar du: musika egin baino lehenago, arnasa hartu eta gero guztiak batera sartu; ez bada hala gertatzen, zuzendariaren erruagatik izan ohi da. Tarte horretan jotzen dutena garbi izan behar dute, baina horrek arrisku bat dauka: kontzertura oso ikasita badoaz, lasaiegi egoten dira, eta niri urduritasun pixka bat izatea gustatzen zait, tentsio positibo batekin egotea. Nik entseguetan gero eta gauza gutxiago esaten ditut, berehala ulertzen baitute esandakoa: nik euren pultsua hartuta daukat, eurek nirea bezala.

Aurten Salbatore Jaietan ereserkia estreinatu da: Bandarentzat pieza erraza izan al da?
Bai, erraza izan zen, oso ondo idatzita zegoen eta. Nire ustez ereserkiak herrikoia izan behar du, herriari gustatu behar zaio; zerbait herrikoia nahi denean, herriaren logika eduki behar du.

Banda Musika Eskolan entsegatzen, Aitor Uria zuzendari dela.

“Musikalki ditugun helburuak gozatzea eta musikari bezala ikastea lirateke”

Amaia Iribar eta Maider Ostolaza

Datorren Sanmartinak arte!

Askizuko bizilagunek zein ingurukoek bost egunez festaz gozatzeko aukera izan zuten. Aurtengoan euria izan zen protagonista nagusia, eta horrek egitarauan zenbait aldaketa egitera behartu zituen antolatzaileak, Askizun ez baitago aterperik. Azaroaren 11, San Martin Eguna, izan zen egun garrantzitsuena: meza Nagusia, hamaiketakoa… Baina beste egunetan ere izan zuten zer ospatua: bailarako ezkondu eta bikoteen afaria (30 bat lagun bildu ziren), gazteen afaria (56 lagun bildu ziren), Mus Txapelketa, herri kirolak, Gorriti eta bere animaliak… Herri kirol lehiaketan, Getariako arraunlariak eta Aizarnazabalgo gazteak neurtu ziren zortzi probatan, eta azkenean, getariarrak nagusitu ziren 15 segundo inguruko aldearekin.

Argazkia: Manzisidor

Getariako Bertso Eskola

Bertso Eskolan jarduten duten hainbat kide.

Getariako Bertso Eskola duela zazpi bat urte sortu zen. Orduztik zortziko txikian, zortziko handian, hamarreko txikian, hamarreko handian... hainbat bertso, errima eta doinu landu dituzte. Hasieratik irakasle izan den Billabonako Amaia Agirre bertsolariarekin izan dugu hitzordua.

Zeinen ekimena izan zen Getarian Bertso Eskola sortzea?

Hasiera batean, duela zazpi urte inguru, Udalak eta LANKUk bi hilabeteko ikastaroa antolatu zuten. Izan zuen arrakasta ikusita, Aste Santura arte luzatu zen hasiera batean Gabonak arte zen ikastaroa.

Sorreratik zer bilakaera izan du?

Hasieratik hona parte hartzaile kopurua ez da gehiegi aldatu, baina talde giroa eta motibazioan gora egin dugula iruditzen zait. Duela hiru urte jendearen konstantzia ez zen hainbestekoa, eta batzuetan lau edo bostekin egiten genituen eskolak; baina iaz eta aurten ikaragarria da, benetan. Urteetan jende asko pasa da, baina hasiera hartako lauk jarraitzen dute oraindik ere.

Hasieratik bertan irakasle zaitugu; Getarian bakarrik jardun al duzu?

Euskal Filologia bukatu orduko hasi nintzen Hitzetik Hortzera saioan, eta han zortzi urte lanean aritu ondoren, lanbidez aldatzea erabaki dut. Bertsozale Elkarteko irakasle hasi naiz aurten eskolaz eskola. Getarian ni izan naiz hasieratik irakasle edo akuilu lanetan aritu dena.

Nola funtzionatzen du Getariako Bertso Eskolak?

Ostegunetan elkartzen gara iluntzeko zortziak aldera; aurten ostegunero afari-merienda egiten dugu, eta astero batek hartzen du horren ardura. Hizketan eta jaten ordu erdi aritu ondoren, bertsotan hasten gara. Batzuetan egurrezko mikrofonoarekin, bestetan eserita eta bertso jarriak kantatuz; geroago elkarri puntuak jarriz, gaia emanda, librean, esperimentazio saioak

Amaia Agirre

Argazkia: Conny Beyreuther.

“Ikasleek lagun artean aritu nahi dute, ez dute plazako bertsolari izan nahi”



Bertso Eskolako ikasleak, egurrezko mikrofonoa lagun dutela, beste ikasleen aurrean bat-batean abesten.

probatuz… Denetik egiten dugu, baina bat-batekoan.

Zein animatzen dira gehiago: emakumezkoak ala gizonezkoak?
Iaz arte neska bakarra ezagutu du Getariako Bertso Eskolak, eta hark ere utzi egin zuen. Gerora beste bat azaldu zen, baina hark ere utzi egin behar izan zuen; aurten bi neska berri ditugu, eta egia da arnas berria ematen diotela taldeari. Oso giro ona dago gure artean.

Zein da taldearen batez besteko adina?
Aurreko urteetan hamazortzi urtekoren bat ibili izan da, baina aurten adibidez 25 urtetik 45 urte bitarteko gaztetxoak ditugu.

Non izaten dira klaseak?
Ostegunetan elkartzen gara liburutegi gaineko Musika Eskolan, eta lekuarekin oso gustura gaude; ez dakit zer esango duten biharamunean gela horretan sartzen direnek!

Bertsolariak trebatzen direnean, animatzen al dira kalean kantatzera?
Ikasle hauek ez dute plazako bertsolari izan nahi; euren artean larunbat gauetan elkarri hitza ezin eman ibiltzen dira, baina jende aurreko saltoak sekulako bertigoa ematen du. Ea aurten zirikatzen ditugun!

Bertso Txapelketa garrantzitsuenetara jende ugari hurbiltzen da; herriko jaialdietara, aldiz, ez horrenbeste. Zergatik?
Herrietan antolatzen diren bertso jaialdietan eta txapelketako saioetan sekulako aldea antzematen da entzule kopuruari dagokionez. Txapelketara soilik joaten den entzulerik ere bada. Lehia eta morboak euskalduna erakarri egiten du, eta ez bertsotan bakarrik. Jendeak onenak entzun nahi ditu, eta txapela jokoan bada, askoz hobeto.

Bertsolari ezagunak badira, ekitaldiek arrakasta gehiago izaten dute; zer deritzozu?
Hori ez da bertsolaritzan soilik gertatzen. Normala iruditzen zait; bertsolari onekin antolatzen den jaialdia garantia bat da aldez aurretik. Gerta daiteke saio pattala ateratzea, baina antolatzaileak nahi dituenak ekartzeko aukera eta eskubidea izaten du ia gehienetan, eta ni hor ez naiz sartzen.

Zer bertsolari perfil duzu gustuko?
Egaña, Iturriaga, Amets eta Maialenen arteko koktela egingo nuke; ezin da, eta egia esan, hala hobeto. Bakoitza zerbaitegatik da den bezalakoa, ezta?

Bertsozale Elkartea aspaldian "Bertsolaritzaren curriculuma" prestatzen ari da hezkuntza arautuan txertatzeko (Lehen Hezkuntzan); zertan da une honetan?
Sekulako arrakasta izan du bertsolaritza hezkuntza arautuan lantzen hasteak, oso balorazio onak jaso dira. Curriculuma ez dago lau lerrotan laburbiltzerik, baina ikasleei mejora baino ez die ekartzen eskolan bertsolaritza lantzeak. Irudimena, jende aurrekotasuna, bat-batekotasuna, formulazioa, kulturaren parte bat… hori eta gehiago jartzen zaie ikasleei eskura.

Ba al dago bertsozaletasunik herrian? Zer egin daiteke areagotzeko?
Nik elizan antolatzen den jaialdia eta beste behin txakolindegi batean egindako bertso afariaren berri soilik dakit. Bati baino gehiagori entzun izan diot Getarian ez dagoela bertsozaletasun ikaragarririk. Bertso Eskolakoak inoiz jende aurrera ateratzea lortzen badut, ikusiko duzue orduan zer nola hurbilduko den jendea!

Lanean buru-belarri.

Zaborrekin, zer?

Lehengo ostiralean, azaroak zazpi, Zarauzko Arteta zabortegia bisitatu genuen.

Aurrena, pertsona bakoitzak zenbat hondakin sortzen duen jakinarazi ziguten: 1,4 kg pertsonako. Ondoren, zaborrek desagertzeko zenbat denbora behar duten ikasi genuen: beirak, adibidez, 4.000 urte.

Hori egin eta gero, zabortegiak nola funtzionatzen duen ikusi eta ikasi genuen: animalientzat hesia ipini; urak lur azpiko hodi-sarearen bidez bideratu; gasa kanporatzeko tximiniak egin; hondakinak lurperatu eta isolatu eskoria, eskonbroa eta lurra erabiliz... Geroxeago, materia organikoarekin konposta nola egiten den erakutsi ziguten.

Azkenik, jolas bat egin genuen zabor gutxiago sortzen ikasteko.

Irtenaldi honetan gauza asko ikasi ditugu eta benetan probetxagarria izan da.

5. maila

elan euskadi
ONGD - GGKE

OSASUN SEXUALA ETA UGALKORRAREN GAINEKO VIII. IKASTAROA

1. MODULUA

Osasun sexuala eta ugalkorra. Mundu mailako testuingurua eta herrialde pobreetan dituzten oztopo nagusiak (1,5 kreditu)

- Zer dira sexu eta ugalketa eskubideak?
- Osasun sexuala eta garapena: Nola eragiten du osasun sexualak herrialdeen garapenean?
- Herrialde pobretuetan sexu eta ugalketa eskubideen garapenerako oztopo nagusiak: emakumezkoen genitalen erauzketa, praktika kultural eta sozialak (kontrazepzioa, prostituzioa etab.)
- Orientazio eta izaera sexuala: Iparralde- Hegoalde errealitate desberdinak.
- Genero indarkeria, mundu mailako arazoa. Emakume etorkinak eta genero indarkeria.
- Sexu eta ugalketa osasunaren oztopo eta aukerak Perun.
- Gehiegizko boterea eta genero desberdintasunak Indian.

Azaroaren 18-19-20-24-25 eta 26 16:00etatik 18:30 era (1,1 gelan)

2. MODULUA

GIB/hiesa: Krisi globala-Ekintza globala. Emakumea eta GIB-a (1,5 kreditu)

- VIHaren epidemiaren testuinguru orokorra eta garapenean dauden herrialdeetan duen eragina. Epidemiaren sarrera orokorra eta lurraldekako bilakaera. Egungo mundu egoera.
- Hiesaren aurpegia, pobreziaren aurpegia: osasun zerbitzu eskasak/ hutsalak, analfabetismoa, praktika kulturalak, gerra gatazkak, errefuxiatuak, etab.
- Emakumea eta VIHa. Epidemiaren feminizazioa.
- VIHaren aurkako borrokaren estrategia osoa: prebentzioa, artatzea eta tratamentua. Sistema Publikoen indartzea.
- Sendagaiak eskura izateko eskubidea: botikak eta multinazionalak, pantenteen aurkako borroka. Gobernuen, GGKEen eta gizarte zibilaren papera. Eragin politikoaren garrantzia.
- Haurtzaroa ikustezin hiesaren aurrean.
- Hiesa, lehen heriotz eragilea Afrikan. Epidemiaren eragina eta testuingurua. Ama- seme trasmisioaren problematika berezia. Erronka globala.

Azaroaren 27an eta 28an, eta abenduaren 2, 4, 9, 10 eta 11n 16:00etatik 18:30era (1.1 gelan)

IZENA EMATEKO:

Donostiako Erizaintza Eskolako idazkaritzan
Modulu bakoitza 20 € ordaindu eta gero:

KUTXA
2101 0001 13 0001435882

EUSKADIKO KUTXA
3035 0060 41 0600043748

(Adierazi: "OSU VIII.aren Kurtsoaren Matrikula" eta ikaslearen izena)

Oharra: Ekuador edo Hondurasen praktikak egiteko, beharrezkoa da moduluak egitea

Ekaitz Balenciaga Iribar
PROIEKTU ETA ERREFORMAK | GREMIOEN KOORDINAZIOA
943 005 861
635 757 820

Hortz Klinika Argidental S.L.
Dr. J.L. Soulier
- Odontologia
- Periodontzia
- Endodontzia
- Inplantologia
- Prebentzioa
- Erreabilitazioa
- Hortz estetika
- Protesiak
Maria Etxetxiki kalea, 1 behea 20800 ZARAUTZ
clinicadentalsoulier@ifonegocio.com T.: 943 130 278

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@euskalnet.net

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

] Aitor Irigoien [

Mendebaldeko txoriak

Eguraldi txarra dago arratsaldean, euria tarteka eta haize hotza. Udazkenaren presentzia nabaritzen hasia da. Marea goian dago, eta olatuak lehian dabiltza haitz zein horma handiekin nork indar handiago, nork iraun gehiago.

Oinez noa Zarautzerako bideko paseoan, haize fresko pixka bat hartzeko asmoarekin. Malkorbe hondartzaren paretik igarotzerakoan geratu egin naiz, paisaia ikusgarriaren eraginez: hondartza dena, ezkerretik eskuinera, kaioz josita dago; hondartzak grisa dirudi, kaio marea erraldoiaren eraginez. Paisaiari begira zur eta lur jarraitzen dut...

Kaio denak pelotoian daude, elkar itsatsita, hondartzan kabitu ezinik. Udan, egun eguzkitsuetan turistak ibili ohi diren bezala. Uda amaierarekin joaten diren turisten lekua kaioek hartu dute; gizakien turismoari, kaioenak eman dio jarraipena.

Hondartza atzean utzita aurrera egin dut. Iturri Txiki igarotzean, itsasertzeko haitz handiek ere kaio gehiagoren bisita dutela ohartu naiz. Hamarnaka atzeman daitezke, haitz grisen tartean kamuflaturik. Lehendik ere kaio asko bertan izan direla begibistakoa da, gehienak kaioen zirin arrastoak pintatuak baitituzte. Berriro turistez gogoratu naiz, hauek ere nekez joaten baitira arrastorik utzi gabe. Modan dago antza *ni hemen egon nintzen* esaldia markatuta uztea; edozein lekutan, edozein modutan.

Irudiok, aspalditik buruan nituen bi hausnarketa berreskuratzera eraman naute: ekologia eta turismoa. Elkarri helduta doazen bi gai, sarri bigarrenak lehenengoaren gain duen eragin negatiboa medio.

Ekologia: halako paisaiak, natura bere osotasunean aske kontenplatzea plazerra da, egunerokoaren zurrunbiloan inor gutxik hartu arren honetarako astirik. Baina honetaz gozatzen jarraitu nahi izanez gero, erantzukizunak hartzen hasi behar dugu, gaur bertatik. Gure bizimodu, ohitura eta kontsumo zoroak eragiten dituen kalteez kontziente izan behar dugu, bakoitzarengatik hasita neurriak hartu.

Materialismoan eta naturaren gain gure buruari ematen diogun hegemonian murgilduta, denaz jabetu nahi izan dugu. Denak omen du jabe bat, baita bertan bizitzeko aukera ematen digun lurrak ere. Honen harira, beti datorkit burura Suwanish tribu indiarreko Seattle jefeak 1855ean AEBtako lehendakariari bidali zion eskutitza, azken honek tribua bizi zen lurrak erosteko egin zion proposamenari erantzunez: "*Lurra ez da gizakiarena, bai aldiz gizakia lurrarena. Suntsitzen eta kutsatzen duzuen denak, lehenago ala beranduago, zuengan eragingo du*". Ordutik urte asko igaro dira, baina inork gutxik hartu ditu aintzat basati kontsideratuak ziren haien irakasgaiak. Zoritxarrez, berdin jarraituko dugula iruditzen zait... bizitza ororen iturria agortu arte.

Turismoa: etxean garbi, kanpoan zikin. Zergatik ez gara gainontzeko lekuak etxea bezala zaintzeko gai? Hainbesteko lana al da kanpora joatean, edo kanpotik etortzean, garbiak izan eta arduraz jokatzea? Beste lekuak bisitatzeak nahi duguna egiteko baimena ematen al digu?

Bestalde, gero eta gehiago ari gara bultzatzen turismoa: Supermuseoak, turistentzat diseinaturiko bisita gidatu eta erakusketak, luxuzko etxeak... kanpokoen nahi eta kapritxoak herritarren beharren gainetik jarriaz. Hainbesteko arreta merezi al du ordea turismoak? Nik jarduera osagarri gisa ikusten dut, herriko jarduera nagusi baino gehiago.

Badira urte batzuk nire gurasoek Kanariar Uharteetara eztei bidaia egin zutela. Bertako kontakizunetatik gehien harritu ohi ninduena turista eta herritarren arteko desberdintasun handia zen. Jatetxe batzutan turistek propina lurrera botatzen omen zieten zerbitzariei, hauek lurretik jaso zezaten... Guk ere turistek prepotentziaz, harrotasunez lurrera botatako propinak jasotzen amaitu nahi ote dugun pentsatzen dut askotan, turismoa beste edozeren gainetik bultzatu nahi dela dirudien garai honetan...

Paseotik bueltan, hondartza hutsik dagoela konturatu naiz, kaio bakar bat ere ez da gelditzen. Denek alde egin dute. Turistek eguzkiak gutxi jotzen duen urteko gainontzeko bederatzi hilabetetan egin ohi duten moduan...

Mendebaldeko txoriak, arrebak halaxe deitu ohi izan die betidanik kaioei. Mendebaldeko txoriak, udazkenean turismo egiten; aldi berean, txori asko mendebaldeko agintari eta goi karguen buruan, garapena, ongizatea eta turismoaren inguruan. Natura eta ekologia bestalde, errege-erregina hipokresia eta ahanzturaren erreinuan. Aldaketa ezinbestekoa da.

Tamaina



Mahai baten bueltan, bazkari legea egiten bi gizonezko eta zortzi emakume,. Mutilak isilik, koilarakada bakoitza, kontzentrazio handiz, babarrunaz bete eta ahoratuz. Arraunlarien paladak bezala, tap dau, tap dau, erritmoa ondo daramate, sabeleko zorriak babarrun aleekin bonbardatuko balituzte bezala.

Nesken ahoak, ordea, lan bikoitza dute: ahora daramatena taxuz mutxikatu eta beraien arteko kalakan parte hartu behar:

- Esaten diten tamainak ez duela axola, baina bai, bai... – dio batek, tonu sinesgaitzez, behatz erakuslearekin ezezko keinua eginez.

- Konturatu al haiz hori esaten duten guztiak gizonezkoak direla? *Zeozegatik* izango den. – beste batek, begia kinatuz.

Bitartean, mutilak isilik; elkarri begiratu konplizea egin eta berriz ere platerari so. Badakite ekaitza datorkiela eta horrelakoetan hobe da burua jaitsi eta zaparradari eustea.

- Beltzena ez den fama bakarrik izango, ni ziur naun egiatik ere zerbait baduela esamesa horrek. – eta hori esanda, irri pikaroa nabarmentzen zaio aurpegian. Beste zazpiak ere barre egiten dute, mahai gainean *striper* beltzarana imajinatuko balute bezala.

- Izango ez din ba! Gogoan al duzue *la cuesta del culo* Donostian? Bai, neskak, gaur egun Mirakontxa deitutako aldapa hori. Ba berritu aurretik hor bahitunan ospe lizuneko pub eta tabernak. Ni ez nindunan handik ibiltzen, – hau esatean masailak gorritu zaizkio – baina lagun batek esanda bazekinat han bazela beltz bat, intxaurra zilborrean jarri eta hankartearekin puskatzen zuena! – Eta ia denak batera, magaletik zilborrerainoko distantzia neurtzen hasten dira, begiak platerak bailiran, handi-handi eginda.

Mahai hartako gizajotako bati, ezentzunaren plantak egiten dabilen bitartean, burutazio franko dabilzkio ganbaran: *"Laster esango dute eztarriko intxaurreraino iristen zitzaiola odolkia; total, zilborretik eztarrira hainbeste ere ez dago eta! Eskerrak jaten ari naizen babarrun hauek sakramenturik gabe etorri diren, bestela…".*

Emakumeen kalakak, ordea, ez du su-etenik ematen:

- Nik bazeukanat halako esperientziatik pasa den laguna eta berak hala esaten din: beltzena probatzen duena ez omen den gero zurienera bueltatzen, kar, kar, kar…

- Ze tuntunak garen: guk bakarrarekin egiteko aukera izan dinagu eta bera zuria suertatu behar!

"Udara partean hamaika beltzaran ibiltzen dira Artzape azpian CD, DVD eta bestelako gutiziak saltzen, baina inor ez zaie hurbiltzen proposamen lizunekin. Un, dos, tres-eko La Bombik galdetzen zuen bezala,¿por que será?" Pentsatzen du, konplexua sartzen hasia zaion mutiletako batek.

Bazkari legearen ostean, aurreko tabernan kafetxoa hartzeko ohitura dute, eta halaxe joan dira bertara: bi mutilak burumakur; neskak, aldiz, kalejiran barrez eta barrez. Ohiko mahaian eseri dira, batzuk kafearekin batera zigarroa errez; besteak tamainari buruzko kalakan jarraituz. Badakizue gizonezko parea zertan? Egunkari bana irakurtzen, bururik altxa gabe, eskeletan azaltzen diren hildakoen izen guztiak ia buruz ikasi arte.

Halako batean nork irekiko tabernako atea eta, hara, txokolate beltza baino azal ilunagoko gazteak, aizue! Bi besoak ordulariz josita; eskuinekoan gizonezkoenak, ezkerrekoan emakumezkoenak; lepotik zintzilik koilare koloretsuak, esmeralda, rubi eta bestelako harribitxien imitazioez eginda; eta eskuetan otartxo bat perfumez beteta: Jean Paul Gaultier, Loewe, Chanel, Hugo, Rochas... Mutiletako bati, begiak egunkaritik kendu eta saltzailea atetik sartzen ikusi duenean, aurpegia aldatu zaio, "Hau duk nirea" esango balu bezala. Beste gizajoari ukalondoarekin saihetsetan kolpea eman eta zutitzeko keinua egin dio. Bera ere zutitu eta honela esan dio beltzaranari:

- Eseri, eseri hemen, lagun, neska hauek zure "merkantzia" probatzeko desiratzen daude eta.

- Bo *guapísimas*, gu Mariñelak soziedadera goaz, ea aurten biotako bati Baltasarrena egiten uzten diguten.

6 ERROMA ETA GERO ZER?

Erromatar Inperioak zituen arazo ekonomiko, politiko eta militar larriei aurre egiteko bere lurralde zabala bi zatitan banatu zuten 395. urtean. Ekonomia askoz ere boteretsuagoa zuen Ekialdeko Erromatar Inperioak biziraupena eta sendotze prozesua hasi zuen bitartean, Mendebaldeko Erromatar Inperioak zituen arazo ekonomiko-politikoak areagotu egin ziren. Arazo horiek zirela eta, gizarte gatazka larriak eta matxinada militarrak nagusitu ziren. Ezegonkortasun sozial eta militarren ondorioz, Inperioaren mugez kanpo zeuden herri germaniarrek mugak hautsi eta Inperioaren barnera sartzeko presioa eta saiakerak areagotu egin zituzten, azkenik 409an muga hautsi eta barneratzea lortu zuten arte. Sueboak, Bandaloak eta Alanoak Iberiar Penintsularaino iritsi ziren, sarraski kanpaina gogorra eraginez. 411ean lehenengoak Galizian kokatu eta erreinu bat sortu zuten, urte gutxian Penintsulako mendebalde osora hedatuko zena. Erromako enperadoreek Inperioko lurralde zabalen gaineko agintea galtzen ari zirela eta herri germaniar batzuekin akordioak sinatu zituzten: Bisigodoen errege Valiak, Bandaloak eta Alanoak garaitu ondoren, 418an enperadorearekin ituna sinatu zuen, Frantziako Tolosan hiriburua zuen Bisigodoen erreinua sorraraziz. Ondorioz, Iberiar Penintsulako ekialdeak nolabait Erromako enperadorearen agintepean jarrai zezala bideratu zuten. Urte horien inguruan euskal lurretako zenbait hiritan (Arabako Veleia-n eta Lapurdiko Lapurdum-en) gudaroste erromatarrak kokatu zituzten aginte hori ziurtatzeko asmoarekin.

Dena den, ezegonkortasun soziala eta ziurtasun falta ez ziren amaitu. Horren lekuko, 456an itsasoz iritsitako Heruloek Barduliako kostaldea -gaur egungo Gipuzkoako kostaldearen gehiengoa, Getaria barne- sarraskitu zuten. Erromako enperadorearen boterea, beraz, gero eta murritzagoa zen; 455ean Erromako hiria bera sarraskitu zuten Bandaloek. Azkenik, 476. urtean Odoacro-ren agintepeko Heruloek azken enperadorea agintetik kendu eta Mendebaldeko Erromatar Inperioaren amaiera eragin zuten. Ordura arte, izenez bazen ere, Erromako enperadorearen agintepean eta herri germaniarrek sortutako erreinuetatik kanpo zeuden lurralde askok, egungo Euskal Herria osatzen dutenak barne, Inperioren azken garaietako egitura ekonomiko, sozial eta administratiboak mantendu zituzten ahal zen neurrian, nolabaiteko burujabetza bat lortu zutelarik. Inperioaren amaierarekin ez zen noski ziurtasun falta bukatu. 463az geroztik itsasoz iritsitako Saxoi eta Bretoiek Bordeletik iparralderako kostaldeak eraso, eta bertan kokatu ziren, horietako Bretoi talde bat Galizian. Dena den, eraso larrienak beren lurraldeak hedatu nahi zituzten erreinu germaniarrek burutu zituzten aurrerantzean. VI. mende hasieran Franko-en erasoak hasi ziren Ipar Euskal Herrian, IX. mendera arte luzatuko zirenak. Penintsula Iberiarrean Bisigodoek sortutako erreinu berriak, 581. urteaz geroztik, erasoak burutu zituen Baskoien aurka. Eraso hauek 711. urtean musulmanak iritsi arte luzatu ziren eta hauek ere politika berdinarekin jarraitu zuten VIII. eta XI. mendeen artean, IX. mende hasieran sortu zen Nafarroako erreinuaren ekimenak pixkanaka eraso horien arriskua aldentzea lortu zuen arte. Bitartean VIII. mendearen erdi aldera, itsasotik heldutako Bikingo edo Normandoek ere eraso gogorrak burutu zituzten euskal kostaldean.

Mendebaldeko Erromatar Inperioaren porrota gertatu arren, orain Getaria den honetako populaketa eten ez zenaren datuak dira, agian, Zarautz Jauregiko aurkikuntza arkeologiko nagusienetakoak. Goian aipatu dugu Inperioaren porrotaren aurreko eta ondorengo urteetan egitura ekonomiko, sozial eta administratiboek bizirautea lortu zutela. Horren lekuko, hemengo biztanleek Akitania inguruarekin zituzten merkataritza harremanak ez ziren eten, erromatar kutsuko zeramikazko ontzien etorrera mantendu egin zelarik. Aldaketa nagusienetakoa etxegintzan nabaritu zen. Agian, aipatu dugun ziurtasun falta horri aurre eginaz bizi izaten jarraitu ahal izateko, lehenagoko zurezko egitura sendoko etxe handiak baztertu, eta txabola edo etxola borobil antzekoak eraikiko zituzten aurrerantzean. Solairu batekoak ziren, eta teilarik gabeko sabaia zuten erabat zura eta zumitzez eraikitako etxe xume hauek. Gehienez, buztinezko edo harri pila batez eraikitako zoru bat zuten lurreko hezetasunetik babesteko. Ziurtasun gabezia zenbait mendez luzatu zenez, etxegintza sistema honek ere asko iraun zuen, azkenekoak XIII eta XIV. mendean eraiki zituztelarik Getaria inguru honetan. Ondorioz, pixkanaka erromatar kutsuko gainbehera ohitura eta egitura asko desagertzeraino iritsi ziren, besteak beste, Akitania ingurutik iristen zen zeramika.

IRUDIA: Erromatar Inperioaren amaieraz geroztik eraikitako etxeak

Pizza orea

Osagaiak:

25 g legami fresko

Koilarakada txiki bat azukre

350 g ogi-irin

150 g arto-irin

Arrautza bat

Oliba olioa

Tomate frijitua

Mozzarela gazta

Egiteko era

Katilu txiki batean legami freskoa jarri eta azukre koilarakada txiki bat gehitu; jarraian, esne epela (katilu txikiaren erdia) eta irin tanta batzuk bota gainera, eta ukitu gabe 20 minutu itxaron fermentatu arte. Ontzi batean ondorengo osagaiak nahastu: bi irin motak, legamia, arrautza, koilarakada bat olio; guztia eskuarekin pixkanaka nahastu eta tarteka ur pixka bat bota masa egin arte. Lana egin behar duzun gaina irineztatu eta bertan masa egiten jarraitu. Gero, pixka bat bustitako zapi garbi batean bildu orea eta ordu betez utzi beroa dagoen zerbaiten ondoan (aurretik pixka bat berotuta dagoen labean, berogailu gainean… . Denbora hori pasa eta gero, berriro irineztatu eta rodilloaren laguntzarekin zabaldu; ondoren, brotxa batekin oliba olioaz orea igurtzi, eta jarraian brotxarekin tomate frijitu pixka bat igurtzi. Mozarella gazta zabaldu, eta gero, nahi diren osagai guztiak gehitu daitezke, norberaren gustuaren arabaera. Azkenik, aurretik berotutako labean sartu 180ºtan 15/20 minutuz.

ON EGIN!!!

1280 Arima

***Idazlea**: Jim Thompson (AEB, 1906)*
***Itzultzailea**: Xabier Olarra*
***Argitaletxea**: Berria. Euskal Editorea*
***Argitalpen urtea**: 2008*
***Orri kopurua:** 260*

Hilabete honetan, Jim Thompsonen lan bikain batekin natorkizue. Lehen edizioa 1964. urtekoa da, eta lanak izan duen arrakasta ikusirik, beste hainbat hizkuntzatara itzuli izan da. Arrakastari dagokionez, idazlearen jatorrizko herrian, AEBetan, ez zen gehiegizkoa izan, baina lurralde horretatik kanpo errekonozimendua lortu du.

Sail beltzari dagokion nobela bat da, eta badu zerbait berezia beste nobela beltzek ez dutena: protagonista, Nick Corey sheriffa, antiheroi bat da, hau da, bere burua inozo moduan aurkezten digu. Estrukturari dagokionez ere trinkoa da; protagonista istorioaren hasieran galduta dabil eta istorioaren amaieran ere halaxe egongo da.

Bortizkeria eta sexua ere oinarrizko bi gai izango dira. Protagonista, herri txiki bateko sheriffa izateaz baliatzen da herritarrekin nahi duena egiteko: hainbat gaizkile akabatzen ditu eta hauen erailketak ez dio inolako damurik sortzen; bere emaztearekin duen harremanaz gain, herriko hainbat emakumerekin ere badabil…

Nobela beltza izanik, umore beltza duen lan bat da. Hilketen ondoren, protagonistak agertzen duen zinismoa harrigarria da. Lan bikaina eta bikain itzulia; nobela beltza gustatzen zion irakurlearentzat primerakoa.

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

] abenduko agenda

[Abenduaren 1a, astelehena]
HIESAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA
* Hiru egunetan Kultur Etxeko balkoian LAZO GORRIA jarrita egongo da Zuen etxeko balkoietan ere jartzera animatzen zaituztegu

[Abenduaren 3a, asteazkena]
NAFARROAREN EGUNA: Getariako nafarren afaria
Noiz: 20:00etan, Taxcon
Non: Marinelak Elkartean
Izen-ematea: Getarianon

[Abenduaren 3a, asteazkena]
EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA
Iturzaeta Herri Eskolako ikasleak eta irakasleak txistu soinuaz lagunduta herriko plazara
jaitsiko dira
Noiz: 12:00etan
Non: herriko plazan
- "EUSKARA PLAZARA" eta "BEHIN BETIKO" kantak abestuko dituzte txistuz lagunduta
- Ikasle batzuek txalaparta eta itsasoko karakolak joko dituzte
- Eskolako haur batzuek ere asmatutako bertso batzuk kantatuko dituzte

[Abenduaren 14a, igandea]
MENDI IRTEERA IZARRAITZERA
(Goiz buelta)
Noiz: 8:30ean
Antolatzailea: Gure Txeru

[Abenduaren 18a, osteguna]
POSTAL LEHIAKETAko saribanaketa
Noiz: 18:00etan
Non: Udal aretoan

[Abenduaren 20a, larunbata
SANTO TOMAS Eguna
Eguerdian**:** txorixo jana, taloak, musika ...
Arratsaldean**:** gaztain erreak
Antolatzailea: Gure Txeru

[Abenduaren 21a, igandea
GABONETAKO KANTALDIA
Noiz: 12:30ean
Non:
Salbatore Deunaren elizan
Antolatzailea:
Musika Eskola eta herriko musika taldeak

[Abenduaren 22a, astelehena]
HAURRENTZAKO ANTZERKIA: MAGIA TEILATUAN. Txalo antzerki taldearen eskutik 4 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat antzerkia eta magia saioa
Noiz: 18:00etan
Non: Eskolako aretoan
Antolatzailea:
Getariako Udala eta Kutxa

[Abenduaren 23a, asteartea]
BILBOKO GABONETAKO PARKERA BIDAIA
Antolatzailea:
Getariako Udala eta Herri Eskolako Guraso Elkartea

[Abenduaren 23a, asteartea]
PATXI USOBIAGA: "UR SAKONETAKO BAKARDADEA".
Eskalada mota bati buruzko ikus-entzunezkoa
Noiz: 20:00etan

[Abenduaren 24a, asteazkena]
OLENTZERO
Herriko taldeak kalez kale kantari.
Noiz: arratsaldean

[Abenduaren 31, asteazkena]
* San Silbestre
KROS HERRIKOIA
Mailak:
Benjaminak (800 m)
Alebinak (1.200 m)
Infantilak eta kadeteak (2.000 m) Helduak (5.000 m)
Noiz: 12:00etan
Antolatzailea:
Sahatsaga kiroldegia

] KZgunea

Noiz: 17:00etatik 20:00etara
Non:
Kultur Etxeko lehen solairuan
Tutorearen abenduko bisitak: abenduaren 5ean eta 19an, 12:00etatik 13:00etara

] Gaztelekua

GABONAK

Noiz: ostirala (17:00-20:00) / larunbata eta igandea (16:00-20:00)
Abenduaren 12a, ostirala:
GABON POSTALAK ETA IRRATI SAIOA PRESTATZEN
Abenduaren 13a, larunbata:
GABON POSTALAK ETA GABONETAKO APAINKETA
Abenduaren 14a, igandea:
GABONETAKO APAINKETA eta POSTALEN BALORAZIOA
Abenduaren 19a, ostirala:
IRRATI SAIOA PRESTATZEN
Abenduaren 20a, larunbata:
ARGAZKI ERAKUSKETAREN PRESTAKETA
Abenduaren 21a, igandea:
ARGAZKI ERAKUSKETAREN PRESTAKETA
Urtarrilaren 2a, ostirala:
TAILERRA: KANDELAK, ZILARGINAK.

Noiz:
(10:00 -13:00 / 16:00 - 20:00)
Abenduaren 22a, astelehena:
TXOKOLATADA
Abenduaren 23a, asteartea:
GAZTE EBALUAZIOA eta ABALORIOAK
Abenduaren 26a, ostirala:
FUTBOL TXAPELKETA
Abenduaren 29a, astelehena:
TXAPELKETEN GINKANA
Abenduaren 30a, asteartea:
IRTEERA:
BILBOKO LASERGUNERA

Telefono interesgarriak

Udal bulegoa 943 896 024
Faxa 943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*
Kiroldegia 943 140 432
Kirol-portua 943 580 959
Taxiak
Segundo 607 720 242
Jose Mari 607 403 498
Udaltzaingoa 943 896 146
Liburutegia 943 896 147
Anbulatorioa 943 140 653
Botika 943 140 441
Herri Eskola.....943 140 729
SOSdeiak 112
Kofradia 943 140 200

artzape aldizkaria
943 000 548
artzape@topagunea.com

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: abenduaren 9tik 14ra (biak barne)

azkuelek ELEKTRIZITATEA
K21 KALITATEA
- DEKORAZIOA
- ILUMINAZIOA
- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO LANAK
Tailerra/Denda: Araba, 41 (MAXI) 20800 ZARAUTZ
Tel./Fax: 943.13.04.33 - 943.13.33.08
Mobila: 619.52.35.39 azkuelek@euskalnet.net
Akumuladoreak eta bero urdina

Ez da makala!

Feliziana Aizpuruk utzitako argazkia.

Aurten bai Paisaia eta bai Donibane Lohitzunen ere ikaragarrizko zimarroiak arrantzatu dira; baina lehen ere baziren tarteka horrelako arrantzak: goiko argazkian ikus daiteke 1954. urtean Getariako moila barruan arrantzatu zuten zimarroi alea. Ez da makala!

Argazkian Brigido Iribar, Feliziana Aizpuru eta Pepita Isasti ageri dira.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu,deitu 943000548 telefonora edo artzape@topagunea.com helbidera bidali.

zorion agurrak

Mari Fran Berasaluze
Abenduak 16
Zorionak etxeko denen partetik. Ondo pasa zure urtebetetze eguna.

Adei Minguez
Abenduak 20
Zorionak eta muxu handi bat.
Aita eta amaren partetik

Mª Carmen Alkorta eta Maialen Larrañaga
Abenduak 1 eta 19
Zorionak familia guztiaren partetik.
Muxu erraldoi bana bioi.

Monika Urkiza
Abenduak 6
Zorionak Artzapeko lantalde guztiaren partetik.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

artzape

URRIKO GALDERA:

Zer mendetan eraiki ziren Getarian etxola borobilak?

AZAROKO ERANTZUNA: ***Erromako hiritar***

IRABAZLEA: Trini Etxabe

Artzapen bazkidea bazara eta erantzuna baldin badakizu, e-mailez (artzape@topagunea.com), gutunez (kale nagusia 1-3 z/g) edo deitu (943 000 548) AZAROAREN 25a BAINO LEHEN.

Saria: Hiru botilako Larchago ardo kaxa bat.

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

artzape

Bazkide-kuota: urtean 18 euro

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....P.K.....Telefonoa:.....

Kontu zenbakia:.....

Sukurtsala:.....

Getariatik kanpo bizi bazara eta aldizkaria etxean jaso nahi baduzu, EGIN BAZKIDE eta bidaliko dizugu!